



Estatua, estatusa, estatutua

Komunitate baten egoera politikoa identifikatzeko hiru kontzeptu dira: estatua, estatusa eta estatutua. Bada hiru horien artean gradazioa. Esan dezagun estatua dela, giza-komunitateetan, autogobernuaren goren gradua, gizatalde propioa eta honen baliabideak bere kabuz, kanpokoen esku-hartzerik gabe, baliatzeko ahalmena ematen duena. Horregatik, hain zuzen ere, estatu propioa, beregaina, independentea nahi izaten dute giza-komunitate autodefinituek, nortasun propioaren jabe errekonozitu izan eta kolektibitate propioa modu egokian antolatzeke ahalmen nahikoa eskaintzen diena.

Estatu propioa lortzea ez da, nolana ere, erraza gertatzen sarri askotan, batez ere jadanik estatu diren komunitate handiago eta indartsuagoen itzalpean aurkitzen diren giza-komunitateentzat. Halakoetan ez da, agian, beste biderik ikusten estatus berezia lortzen ahalegintzea baino. Estatu gradutik estatus gradura bada, beraz, de-gradazio bat, gradu-jaitiera.

Horren adibide argia eskaintzen du, nazioarteko politikan, Palestinak; estatu independentea aldarrikatu zuen 1988 urtean, eta urtea amaitu aurretik, nazioarteko komunitatean estatu ugari onartu egin zuen estatu jaioberria; estatu ugari bai, baina ez Israelek, palestinarrek azpiratuta mantentzen di-

Bizitzaren arlo guztietan ari gara ikusten, azkenaldian, berezko aurrerabidearena aurreiritzi erratua dela, historiak ez duela berez aurrera egiten, ez bazaio zentzu horretan indar handiz bultzatzen

tuen estatu sionistak, hain zuzen ere. Horregatik, estatus apalagoa onartzera behartu zuten 1993. urtean, Nazio Aginete Palestinarra deitua.

Nazio Batuen Erakundean ere, estatu independentetzat onartu ordez, estatus berezia eskaini zioten Palestinari, ez gainontzeko estatu independenteen mailakoa, maila apalagokoa baizik. Baina Palestinaren egoera ez zen estatus horretan ere egonkortu, hortik estatutu are degradatuagoa eskaintzen baitio gaur egun Israeleko estatu sionistak.

Goitik beherako bidean, beraz. Edonola ere, inor gutxik ukatzen dio gaurko munduan Palestinari estatu beregaina izateko legitimitatea eta are premia larria. Duen egoera tamalgarritik irten eta bere giza-komunitate propioa antolatu ahal izateko, estatu osoa, betea, indepen-

dentea behar du Palestinak. Ez estatus, ez estatutu.

Mutatis mutandis, egoera desberdina kontuan izanda ere, beste horrenbeste gertatzen zaigu euskal herritarroi, ene aburuz. Estatu propioa behar dugu, ez estatus, ez estatutu. Estatu beregaina, independentea, horixe behar du, gaur, Pirinioetako alde bietan aspalditik kantant eta dantzan dabilen herri honek, hori besterik egiteko ahalmenik onartu ez baitigute gaur arte, gainean jarri zaizkigun bi estatuek. Gaur, XXI. mendean, bada garaia gure elea hartu eta gure estatua izateko.

Agian norbaitek argudiatuko du estatu propioa lortzeko bidean, gradazioa behetik gora egin behar dugula, txikitik handira, estatututik estatusera eta azkenean estatu independentea izatera. Horrela argudiatzen duenak, historiaren berezko aurrerabidean edo progresioan sinesten du, beharbada. Tamalez, bizitzaren arlo guztietan ari gara ikusten, azkenaldian, berezko aurrerabidearena aurreiritzi erratua dela, historiak ez duela berez aurrera egiten, ez bazaio zentzu horretan indar handiz bultzatzen. Eta gu, bulkada hori emateko prest gaude? Horretarako, helburua, estatu independentea, erakargarri azaldu behar dugu, zehatz eta sinesgarri, komunitatearen aurrean; horren aldeko indar erraldoia bildu, eta abiatu. ●



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA